



ATZERRIKO IMMIGRAZIOA BILBON 2022. URTEAN

Panoramika honetan 2022ko urtarrilaren 1ean Bilbo udalerrian erroldatu dagoen atzerriko jatorriko populazioa aztertuko dugu; horretarako udalerriak berak emandako erroldako datuak erabiliko ditugu oinarri gisa.

34.846

pertsona
erroldatuta
eta atzerriko
nazionalitatearekin

51.464

jatorri
atzerritarreko
pertsona
erroldatuak

26.942

jatorri
atzerritarreko
emakume
erroldatuak

% 10,1

pertsona
erroldatuta
eta atzerriko
nazionalitatearekin

% 14,9

jatorri
atzerritarreko
pertsona
erroldatuak

% 52,4

emakumeen
ehunekoa
atzerriko jatorriko
erroldatuen artean

Aurreko panoramiketan bezala, nabarmendu nahi dugu nazionalitatearen aldagaia ez dela aski Bilbo udalerrian dauden kultura eta jatorrien aniztasuna aztertzeko. Hala, Bilboko hiritar batzuek atzerriko nazionalitatea daukate, beste batzuek Espainiako nazionalitatea eta atzerriko jatorria daukate

(beste herrialde batean jaio dira), beste batzuek Espainiako nazionalitatea daukate baina gurasoak atzerrikoa dira (aita, ama edo biak beste herrialde batekoak) eta horiekin batera daude Espainiako nazionalitatea eta Espainiako estatuko jatorria duten hiritarrak.

1. TAULA. BILBON ERROLDATUTAKO POPULAZIOA, NAZIONALITATEAREN ETA JAIOTERRIAREN ARABERA, 2022

	GUZTIRA	GIZONA	EMAKUMEA
ATZERRIKO NAZIONALITATEA DUEN POPULAZIOA	34.846	17.850	16.996
ESPAINIAKO NAZIONALITATEA DUEN ETA ATZERRIAN JAIO DEN POPULAZIOA	16.618	6.672	9.946
JATORRI ATZERRITARREKO POPULAZIOA, GUZTIRA	51.464	24.522	26.942
ESPAINIAKO NAZIONALITATEA DUEN ETA ESPAINIAKO ESTATUAN JAIO DEN POPULAZIOA	293.214	138.501	154.713
ERROLDATUTAKO PERTSONAK, GUZTIRA	344.678	163.023	181.655

Gaur egun, Bilbon erroldatutako populazioaren % 10,1ek (34.846 pertsona) atzerriko nazionalitatea du; atzerriko nazionalitatea daukaten pertsona kopuru horri gehitzen badiogu atzerrian jaio arren gaur egun Espainiako nazionalitatea daukan populazioa (16.618 pertsona, % 4,8), ikusiko dugu Bilboko populazioaren % 14,9k (51.464 pertsona) atzerriko jatorria duela. Aurreko urteetan bezala ikusi da migrazio mugimenduak gelditu egin direla (2021ean atzerriko

pertsonak % 10,0 ziren) eta nazionalizazioek igoera arina izan dutela (aurreko urtean atzerrian jaiotako populazioaren % 4,6).

Jarraian, atzerriko jatorria duen populazioaren datu soziodemografiko nabarmenenak aztertuko dira, hau da, atzerrian jaio den eta/edo atzerriko nazionalitatea duen populazioaren datuak.

1. Atzerriko jatorria eta Espainiako jatorria¹ duen Bilbon erroldatutako populazioaren bilakaera

2022ko urtarrilaren 1ean, atzerriko jatorria duten 51.464 pertsona daude Bilbon erroldatuta, aurreko urtean baino 673 pertsona gehiago. 2011. urtetik, Bilboko populazioak 8.578 pertsonatan egin du behera; jatorri espainiarreko 22.690 pertsona galdu ditu, eta galera hori, partzialki, atzerriko

jatorria duen populazioaren gorakadarekin orekatu du (14.112 pertsona). Bestalde, nabarmendu behar da 2020tik, partzialki migrazio fluxuak etetearen ondorioz, udalerriko biztanle kopuruak behera egin duela.

2. TAULA. BILBOKO POPULAZIOAREN BILAKAERA SEXUAREN ETA JATORRIAREN ARABERA, 2011-2022

	POPULAZIOA GUZTIRA			JATORRI ESPAINIARREKO P.			JATORRI ATZERRITARREKO P.		
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
2011	167.176	186.080	353.256	149.003	166.901	315.904	18.173	19.179	37.352
2012	166.632	185.770	352.402	148.056	165.978	314.034	18.576	19.792	38.368
2013	165.170	184.699	349.869	147.176	164.977	312.153	17.994	19.722	37.716
2014	163.703	183.575	347.278	146.227	163.975	310.202	17.476	19.600	37.076
2015	163.106	183.172	346.278	145.591	163.214	308.805	17.515	19.958	37.473
2016	162.945	182.697	345.642	145.053	162.312	307.365	17.892	20.385	38.277
2017	162.692	182.782	345.474	144.201	161.537	305.738	18.491	21.245	39.736
2018	163.120	183.212	346.332	143.702	160.864	304.566	19.418	22.348	41.766
2019	163.622	183.461	347.083	142.723	159.615	302.338	20.899	23.846	44.745
2020	165.663	184.964	350.627	142.114	158.672	300.786	23.549	26.292	49.841
2021	164.036	182.964	347.000	139.899	156.310	296.209	24.137	26.654	50.791
2022	163.023	181.655	344.678	138.501	154.713	293.214	24.522	26.942	51.464
2011-2021	-4.153	-4.425	-8.578	-10.502	-12.188	-22.690	6.349	7.763	14.112


ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Hurrengo grafikoan ikus daiteke atzerriko jatorria duten pertsonak udalerrira iristeko prozesuak nolako bilakaera izan duen azken 10 urteetan. Atzerriko jatorria duen populazioak behera egitea bat etorri zen atzerapen ekonomikoko aldiarekin; ondoren, 2015etik aurrera, krisia gainditu zela esaten zuen kontakizunari eusten zioten adierazle makroekonomikoen gero eta konfiantza handiagoarekin, atzerriko jatorria zuten eta udalerrian erroldatutako pertsonen bolumenak pixkanaka

gora egin zuen; 2019. urteko pertsonen igoera nabarmendu behar da, 5.096 pertsonatan egin baitzuen gora. Azken datuek COVID-19ak migrazio fluxuetan izan duen eragina islatzen dute. Azken urtean, atzerriko jatorria duen eta Bilbon erroldatutako pertsonen kopuruak soilik 673 pertsonatan egin du gora. Horrek esan nahi du soilik 2019an iritsi ziren pertsonekin erkatuta % 86,8ko atzerapena izan dela, eta % 29,2koa aurreko urteko datuekin alderatuta.

¹ Atzerriko jatorria duten pertsonen artean daude atzerrian jaiotako pertsonak ez ezik (jatorrizko nazionalitatea mantendu edo espainiarra lortu badute), baita euskal jatorriko batzuk ere (EAEn jaiotakoak), baina atzerriko nazionalitatea dutenak, esaterako atzerriko nazionalitatea eta jatorria duten pertsonen seme-alabak, jatorri txinatarrak, errumaniarrak, marokoiarrak edo nigeriarrak dutenak, Espainiako estatuan jaio arren ez baitute jatorrizko Espainiako nazionalitatea eskuratzen.

1. GRAFIKOA. ATZERRIKO JATORRIA DUEN POPULAZIOAREN URTE ARTEKO HAZKUNDEA BILBON (ABSOLUTUAK), 2012-2022




ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

2021ean (Bizkaiarekin, EA Erekin eta Espainiako estatuarekin konparatzeko daukagun azken datua) Bilbon erroldatutako populazioaren % 14,6k atzerriko jatorria zuen. Ehuneko

hori Bizkaiko eta EA Eko zifra baino altuagoa da (% 11,3 eta % 12,0 hurrenez hurren), baina Espainiako estatuarena baino baxuagoa (% 16,6).

2. GRAFIKOA. ATZERRIKO JATORRIA DUEN POPULAZIOAREN EHUNEKOAREN BILAKAERA BILBON, BIZKAIAN, EAEN ETA ESPAINIAN 2011-2021²




ITURRIA: ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA (INE)

Hurrengo grafikoan atzerriko nazionalitatea duten pertsonen eta atzerriko jatorriko pertsonen artean dagoen "arrakala" ikus daiteke, nazionalizazio prozesuak areagotzearen ondorioz. Arrakala hori handitu egin da 2011tik, eta gaur egun atzerriko

nazionalitatea duten 34.846 pertsona (populazio osoaren % 10,1) eta atzerriko jatorria duten 51.464 pertsona daude (guztiaren % 14,9).

3. GRAFIKOA. BILBON ERROLDATUTAKO ATZERRIKO NAZIONALITATEA ETA ATZERRIKO JATORRIA DUEN POPULAZIOAREN BILAKAERA, 2011-2022




ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

² Kontuan hartu behar da datu horiek atzerriko jatorria duen populazioari egiten diotela erreferentzia, hala ulertuz atzerriari jaiotako eta/edo atzerriko nazionalitatea duen populazioa. Horrenbestez, pertsonen atzerriko jatorria dutela sailkatzeko erreferentzia gisa soilik jaioterriaren aldagai hartzen duten beste ustiapen batzuekin konpara daitezke datu hauek.

Oro har, helduerak moteldu ziren atzerapen ekonomikoaren ondoren eta, are beherakadak izan ziren urteen ondoren, indize makroekonomikoek hobera egin ahala migrazio fluxuek ere goranzko joera izan zuten eta, horrenbestez, atzerriko


nazionalitatea duen populazioa areagotu egin zen. Hala ere, pandemiaren ondorioz migrazio fluxuak murriztu egin dira. Hala, azken urtean atzerriko nazionalitatea duten pertsona erroldatuek 32 pertsonatan egin du behera.

4. GRAFIKOA. ATZERRIKO NAZIONALITATEA DUEN POPULAZIOAREN URTE ARTEKO HAZKUNDEA BILBON, 2011-2022




ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

5. GRAFIKOA. BILBOKO POPULAZIOAREN BILAKAERA NAZIONALITATEAREN ARABERA, 2000-2022



ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

6. GRAFIKOA. BILBOKO POPULAZIOAREN BILAKAERA JATORRIAREN ARABERA, 2000-2022



ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

2. Bilbon erroldatutako populazio atzerritarren jatorriak eta nazionalitateak

2.1 Bilbon erroldatutako populazio atzerritarren jatorri³ eta nazionalitate nagusiak

Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, Bilbon erroldatutako atzerriko jatorriko 51.464 pertsonetatik 7.408 Kolonbiakoak dira; horrek esan nahi du Latinoamerikako herrialde hori dela jatorrizko herrialde nagusia, zifra osoaren % 14,4 hartuz. Herrialde horren atzetik datoz Maroko (% 9,2) eta Bolivia (% 8,6).

Atzerriko jatorria duen populazioaren bilakaerari erreparatuz gero ikus daiteke txikitu egin dela Bolivia, Paraguai,

Ekuador, Brasil edo Peru herrialdeetatik iritsitako populazio latinoamerikarraren pisua, baita jatorri errumaniarreko populazioarena ere; beste herrialde batzuen kasuan aurkakoa gertatu da, esaterako Maroko edo Latinoamerikako zenbait herrialderen kasuan (Nikaragua eta Venezuela). Marokoko jatorria duen populazioaren igoera nabarmendu behar da; jatorrizko bigarren komunitatea da orain. Bestalde, Kolonbiatik iritsitako populazioaren kasuan, pisu erlatiboa handitzeko joera berdin mantendu da.

3. TAULA. BILBON ERROLDATUTAKO ATZERRIKO JATORRIA DUEN POPULAZIOAREN JATORRI NAGUSIEN BILAKAERA, 2011-2022

	2022				EHUNekoAREN BILAKAERA ATZERRIKO POPULAZIO OSOARI DAGOKIONEZ											
	GIZONAK	EMAK.	GUZT.	%	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	
KOLONBIA	3.141	4.267	7.408	14,4	14,1	13,8	13,2	12,6	12,3	12,2	12,4	12,7	13,0	13,2	13,4	
MAROKO	3.364	1.395	4.759	9,2	8,8	8,5	7,7	7,4	7,3	7,4	7,3	7,2	6,8	6,9	6,7	
BOLIVIA	1.773	2.631	4.404	8,6	8,8	9,1	9,2	9,7	10,1	10,4	10,6	10,8	11,1	11,6	12,3	
NIKARAGUA	955	2.468	3.423	6,7	6,5	6,2	5,0	3,9	3,3	2,8	2,3	1,9	1,5	1,3	0,9	
VENEZUELA	1.470	1.617	3.087	6,0	5,7	5,4	5,6	5,8	5,7	5,6	5,5	5,6	5,0	4,5	4,1	
TXINA	1.159	1.211	2.370	4,6	4,9	5,0	4,8	4,2	4,2	4,1	3,9	4,0	4,2	4,2	4,1	
ERRUMANIA	1.058	1.246	2.304	4,5	4,8	5,2	4,5	3,8	3,3	3,0	2,9	2,9	3,0	2,9	2,7	
PARAGUAI	612	1.452	2.064	4,0	4,1	4,2	4,2	5,2	5,5	5,7	5,9	5,9	5,8	5,9	6,0	
EKUADOR	890	1.018	1.908	3,7	3,8	3,9	4,2	4,4	4,5	4,6	4,7	4,7	4,6	4,6	4,4	
BRASIL	377	882	1.259	2,4	2,5	2,6	4,1	4,3	4,6	4,7	4,9	5,1	5,4	5,6	5,9	
PERU	510	697	1.207	2,3	2,3	2,3	2,6	2,7	2,8	2,9	2,9	2,9	3,2	3,5	3,7	
ARGENTINA	538	563	1.101	2,1	2,1	2,1	2,2	2,1	2,1	2,1	2,1	2,0	2,1	2,0	1,9	
SENEGAL	811	166	977	1,9	1,8	1,9	2,1	2,1	2,2	2,2	2,2	2,3	2,4	2,4	2,6	
ALJERIA	720	256	976	1,9	1,9	1,8	1,9	2,0	2,1	2,2	2,5	2,5	2,5	2,5	2,6	
NIGERIA	462	436	898	1,7	1,8	1,8	1,9	2,0	2,0	2,0	2,0	1,9	1,9	1,9	2,0	
GAINERAKOAK	6.682	6.637	13.319	25,9	26,1	26,3	27,0	27,7	28,0	28,1	27,9	27,6	27,5	27,0	26,7	
GUZTIRA	24.522	26.942	51.464	100	100	100	44.745	41.766	39.736	38.277	37.473	37.076	37.716	38.368	37.352	


ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Gaur egun, Bilbon erroldatutako atzerriko jatorriko populazioaren % 57,6k Latinoamerikako jatorria du. Hala ere, atzerriko jatorria duen populazioaren jatorrizko eremu nagusien urte arteko hazkundearen bilakaera jasotzen duen hurrengo grafikoan ikusten den moduan, COVID-19ak eragindako krisiak termino absolutuetan gogorren jo duen eremuetako bat Latinoamerika izan da. Hala, 2019 eta 2020 artean udalerrian erroldatutako jatorri latinoamerikarreko pertsonen kopuruak 3645 pertsonatan egin zuen gora;

2021 eta 2022 artean igoera hori soilik 531 pertsonakoa izan da, duela bi urte baino % 85,4 txikiagoa. Populazio magrebtarraren kasuan, atzerapen hori txikiagoa izan da pandemia aurreko egoerarekin alderatuta; azken urtean, gainera, iritsitako pertsonen kopuruak % 26,4 egin du gora. Bestalde, bi urte hauetan populazioa txikiagotu egin da eremu hauetan: Europar Batasuna (-146 pertsona), Saharaz hegoaldeko Afrika (-45 pertsona) eta Asia (-28 pertsona).

³ Jatorriaren aldagaiak udalerriko aniztasuna ahal bezain ondo jasotzeko ahalegina egiten du, eskura dauden errolda datuak aintzat hartuz. Aldagai hau atzerrian jaiotako pertsonen jaioterriari dagokio (nazionalitatea edozein dela ere), eta nazionalitate herrialdeari dagokio Espainian jaiotako atzerriko nazionalitatea daukaten pertsonen kasuan.

7. GRAFIKOA. ATZERRIKO JATORRIA DUEN POPULAZIOAREN JATORRIZKO EREMU NAGUSIEN URTE ARTEKO HAZKUNDEAREN BILAKAERA, 2012-2022




ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Hurrengo grafikoan ikus daiteke COVID-19ak eragin nabarmena izan duela Bilbon erroldatutako atzerriko jatorriko populazioaren jatorri nagusietako bakoitzaren hazkunderan. Pandemiaren ondorioz, iritsitako pertsonen bolumena nabarmen murriztu da, eta Kolonbiako kasua azpimarratu behar da. Hala, 2019 eta 2020 artean Kolonbia izan zen gehien hazi zen jatorria, 945 pertsonako hazkunde absolutuarekin; azken urtean zifra hori 223 pertsonara murriztu da, % 76,4ko beherakadarekin. Nikaragutatik iritsitako pertsonen beherakada

handiagoa izan da: 2019 eta 2020 artean 803 pertsona izatetik, azken urte honetan 100 pertsonatan baino ez du egin gora; horrek% 87,5 gutxiago esan nahi du. Bestalde, azken urte honetan Venezuela eta Marokotik iritsitako pertsonen kopurua hazi egin da. Azkenik, jatorri hauek saldo negatiboa izan dute, eta erroldatutako pertsonen kopuruak behera egin du: Errumania (-136 pertsona), Txina (-106 pertsona), Bolivia (-65 pertsona) eta Paraguai (-32 pertsona).

8. GRAFIKOA. ATZERRIKO JATORRIA DUEN POPULAZIOAREN JATORRI NAGUSIEN URTE ARTEKO HAZKUNDEAREN BILAKAERA, 2012-2022




ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Pertsonen kopuruak jatorrizko eremuekin eta nazionalitate eremuekin alderatzen baditugu, desberdintasun argiak ikusiko ditugu nazionalizazioen ondorioz. Latinoamerikako

populazioaren kasua nabarmendu behar da: Bilbon erroldatutako jatorri latinoamerikarreko 29.655 pertsonetatik 12.904 espainiar hiritarrak dira.

9. GRAFIKOA. ATZERRIKO NAZIONALITATE ETA JATORRI EREMUEN OSAERA, ABSOLUTUAK, 2022



ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK


Hurrengo taulan atzerriko jatorria eta nazionalitatea duten pertsonen arteko desberdintasunetan sakondu da. 2022ko urtarrilaren 1ean Maroko zen Bilboko atzerriko populazioaren

nazionalitate nagusia, eta atzerriko populazio osoaren % 11,5 hartzen zuen. Presentzia handiena zeukaten hurrengo nazionalitateak Kolonbia (% 11,0) eta Nikaragua (% 9,0) izan ziren.

4. TAULA. BILBOKO JATORRI ETA NAZIONALITATE NAGUSIAK, 2022

	NAZIONALITATEA				JATORRIA		
	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK		GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
MAROKO	4.002	1.092	2.910	KOLONBIA	7.408	4.267	3.141
KOLONBIA	3.820	1.994	1.826	MAROKO	4.759	1.395	3.364
NIKARAGUA	3.143	2.229	914	BOLIVIA	4.404	2.631	1.773
ERRUMANIA	2.259	1.218	1.041	NIKARAGUA	3.423	2.468	955
TXINA	2.186	1.070	1.116	VENEZUELA	3.087	1.617	1.470
VENEZUELA	2.044	1.078	966	TXINA	2.370	1.211	1.159
BOLIVIA	1.906	980	926	ERRUMANIA	2.304	1.246	1.058
PARAGUAI	1.624	1.101	523	PARAGUAI	2.064	1.452	612
ALJERIA	866	218	648	EKUADOR	1.908	1.018	890
NIGERIA	851	412	439	BRASIL	1.259	882	377
BRASIL	849	570	279	PERU	1.207	697	510
SENEGAL	828	143	685	ARGENTINA	1.101	563	538
HONDURAS	712	503	209	SENEGAL	977	166	811
ITALIA	686	298	388	ALJERIA	976	256	720
PERU	581	330	251	NIGERIA	898	436	462
PORTUGAL	499	215	284	FRANTZIA	888	493	395
PAKISTAN	496	114	382	HONDURAS	836	598	238
EKUADOR	467	191	276	KUBA	777	451	326
ARGENTINA	380	178	202	DOMINIKAR ERREP.	729	436	293
ERRESUMA BATUA	342	116	226	PAKISTAN	544	123	421
FRANTZIA	326	177	149	PORTUGAL	516	222	294
NEPAL	326	147	179	MEXIKO	508	300	208
KUBA	290	164	126	ERRESUMA BATUA	460	189	271
GEORGIA	273	151	122	EKUATORE GINEA	425	311	114
GINEA-BISSAU	263	116	147	ITALIA	417	171	246
DOMINIKAR ERREP.	257	123	134	ALEMANIA	398	196	202
KAMERUN	252	75	177	AMERIKETAKO EB	368	210	158
GAINERAKOAK	4.318	1.993	2.325	ERRUSIA	351	214	137
GUZTIRA	34.846	16.996	17.850	TXILE	351	183	168
				GINEA-BISSAU	334	152	182
				NEPAL	328	149	179
				GEORGIA	293	163	130
				UKRAINA	275	153	122
				KAMERUN	274	88	186
				GAINERAKOAK	4.247	1.835	2.412
				GUZTIRA	51.464	26.942	24.522


10. GRAFIKOA. ATZERRIKO JATORRIA DUEN POPULAZIOAREN HAMABOST JATORRI GARRANTZITUENEN BANAKETA 2022AN



ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Atzerriko jatorria duen populazioaren nazionalizazioan desberdintasun argiak ikusten dira jatorriaren arabera. Hala, Latinoamerikako pertsonen artean Espainiako nazionalitatea lortu duen populazioaren ehunekoa (% 42,2) udalerrian erroldatutako atzerriko jatorriko populazioaren batez bestekoa baino handiagoa da. Europar Batasunetik iritsitako populazioaren artean nazionalizatutako populazioaren pisua


11. GRAFIKOA. HAMABOST NAZIONALITATE GARRANTZITUENEN BANAKETA 2022AN



ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

ere garrantzitsua da (% 39,7). Bestalde, Espainian jaio eta atzerriko nazionalitatea duen populazio barruan, gurasoak Txinakoak (% 19,5), Bulgaria, Errumania eta Kroaziakoak (% 16,6), Saharaz hegoaldeko Afrikakoak (% 10,0) eta Magrebekoak (% 8,0) dituzten pertsonen ehunekoa dira altuenak.

12. GRAFIKOA. ATZERRIKO NAZIONALITATEA DUEN ETA/EDO ATZERRIAN JAIOTAKO POPULAZIOA, JATORRIZKO EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERA, 2022



ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

2.2 Atzerrian jaio baina Espainiako nazionalitatea duten biztanleak

Atzerriko pertsona immigranteen nazionalizazio prozesua pixkanaka eta etengabe garatzen da: atzerrian jaio eta dagoeneko Espainiako nazionalitatea lortu duten 16.618 pertsona daude 2022an Bilbon erroldatuta, 2021ean zeudenak baino 705 gehiago.

Bilbon erroldatutako atzerriko jatorriko populazio osotik, 51.464 pertsona, % 32,3k lortu du Espainiako nazionalitatea, hau da, migratu duten hiru pertsonetatik bat dagoeneko euskalduna da, eskubide osoz.

5. TAULA. ATZERRIKO POPULAZIO NAZIONALIZATUAREN BILAKAERA, 2011-2021


	NAZIONALIZAZIOAK	JATORRI ATZERRITARRA DUEN BIZTANLERIA	%
2011	7.489	37.352	20,0
2012	8.177	38.368	21,3
2013	9.193	37.716	24,4
2014	10.234	37.076	27,6
2015	11.773	37.473	31,4
2016	12.582	38.277	32,9
2017	13.662	39.736	34,4
2018	14.157	41.766	33,9
2019	14.930	44.745	33,4
2020	15.602	49.841	31,3
2021	15.913	50.791	31,3
2022	16.618	51.464	32,3

ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Espainiako nazionalitatea lortu eta atzerrian jaio diren pertsonen artean jatorri nagusia Kolonbia da; jatorri guztien ia laurdena hartzen du (% 21,5). Boliviak eta Ekuadorrek ia

bikoiztu egin dituzte hurrengo nazionalitateak. Latinoamerikar jatorriez gain, europar batzuk nabarmentzen dira, Frantzia, Alemania edo Errusia kasu.

13. GRAFIKOA. ATZERRIKO JATORRIA DUEN POPULAZIO NAZIONALIZATUAREN JATORRI NAGUSIAK, 2022



ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

2.3 Espainian jaio den nazionalitate atzerritarreko populazioa

Espainiako estatuan jaio diren baina Espainiako nazionalitatea lortu ez duten 2.782 pertsona daude Bilbon erroldatuta 2022an. Atzerriko jatorriko pertsona guztien % 5,4 dira; pertsona horiek Espainiako eta/edo EAeko jatorria dute, Espainiako estatuan jaio direlako, baina gurasoek atzerriko

jatorria dute. 2021. urtearekin alderatuta talde horretan 48 pertsona gutxiago dago. Pertsona horietatik ia denak adin txikikoak dira eta erdiak baino gehiagok (% 53,3) 6 urte baino gutxiago ditu.


6. TAULA. ESPAINIAN JAIKO ETA ATZERRIKO NAZIONALITATEA DUEN POPULAZIOA, ADINAREN ARABERA, 2011-2022

	GUZTIRA	0-5	6-15	16-17	18 ETA GEHIAGO
2011	1.525	78,6	13,6	0,9	7,0
2012	1.721	78,6	14,9	1,0	5,5
2013	1.900	77,9	16,5	0,5	5,2
2014	2.064	76,6	18,4	0,4	4,5
2015	2.045	71,2	24,6	0,2	3,8
2016	2.149	67,7	28,3	0,4	3,7
2017	2.279	64,5	31,6	0,7	3,2
2018	2.422	61,5	34,6	0,9	2,9
2019	2.506	58,8	36,5	1,3	3,5
2020	2.700	56,8	37,9	1,6	3,7
2021	2.830	54,8	39,1	2,0	4,1
2022	2.782	53,3	39,5	2,4	4,7

ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Kolektibo horren barruan pisu handiena duten nazionalitateak Txina (% 16,6), Errumania (% 14,0), Maroko (% 13,0), Nigeria (% 8,2), Bolivia (% 6,6) eta Nikaragua (% 6,0) dira.

14. GRAFIKOA. ESPAINIAN JAIOTAKO ATZERRIKO POPULAZIOAREN NAZIONALITATE NAGUSIAK, 2022



ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

3. Atzerriko jatorriko populazioaren ezaugarri soziodemografikoak (sexua, adina eta ikasketa maila)


3.1 Sexua



Atzerriko jatorria izan eta Bilbon errolatutako biztanleen artean gehienak emakumeak dira (% 52,4). Latinoamerikako populazioak du feminizazio ehunekorik handiena (% 60,4), eta argi geratzen da populazio horrek gure inguruan aurkitzen duen lan nitxoekin duen lotura, etxeko sektoreari eta zaintzen sektoreari dagokienez. Hala, ez da harritzekoa jakitea Bilbon errolatutako atzerriko jatorriko populazioaren % 34,8 Latinoamerikatik iritsitako emakumeek hartzen dutela.

Bestalde, EB28k batez bestekotik gorako feminizazio tasak ditu (% 54,1). Txina batez bestekotik behera dago, distantzia handiarekin gutxien feminizatutako eremuei dagokienez; azken horien artean daude Magreb (% 28,8), Afrikako gainerako herrialdeak (% 36,9), eta Txinarik gabeko Asia (% 39,2).

15. GRAFIKOA. BILBOKO ATZERRIKO JATORRIKO POPULAZIOA JATORRI EREMUEN ETA FEMINIZAZIO EHUNEKOEEN ARABERA, 2022



Kolektiboen feminizazioari dagokionez, taula honetan hiru agertoki desberdin ikus daitezke, jatorrizko herrialde bakoitzaren feminizazio mailaren arabera: nagusitasun-gehiengo maskulinoa, nagusitasun-gehiengo femeninoa eta bien arteko oreka. Gehiengo maskulinoa duten egoeren artean Pakistan edo Senegal aipatu behar dira,

non % 80 inguru gizonak diren. Beste muturreko egoeren artean, alegia gehiengo femeninoa dutenen artean, Nikaragua, Honduras, Paraguai eta Brasil bezalako jatorri latinoamerikarrak nabarmendu behar dira, non 10 pertsonatik 7 emakumeak baitiren.

7. TAULA. BILBOKO ATZERRIKO JATORRIKO POPULAZIOAREN FEMINIZAZIO TASA, JATORRIZKO HERRIALDEAREN ARABERA, 2022

GEHIENGO MASKULINOA		OREKA		GEHIENGO FEMENINOA	
% 0TIK % 45ERA		% 45,1ETIK % 55ERA		% 55,1ETIK % 100ERA	
PORTUGAL	43,0	ERRUMANIA	54,1	EKUATORE GINEA	73,2
ERRESUMA BATUA	41,1	EKUADOR	53,4	NIKARAGUA	72,1
ITALIA	41,0	VENEZUELA	52,4	HONDURAS	71,5
MAROKO	29,3	TXILE	52,1	PARAGUAI	70,3
ALJERIA	26,2	ARGENTINA	51,1	BRASIL	70,1
PAKISTAN	22,6	TXINA	51,1	ERRUSIA	61,0
SENEGAL	17,0	ALEMANIA	49,2	DOMINIKAR ERREPUBLIKA	59,8
		NIGERIA	48,6	BOLIVIA	59,7
		GINEA BISSAU	45,5	MEXIKO	59,1
				KUBA	58,0
				PERU	57,7
				KOLONBIA	57,6
				AMERIKETAKO EB	57,1
				FRANTZIA	55,5

ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Atzerriko jatorria izan eta Bilbon bizi diren emakume gehienek jatorri latinoamerikarra dute, eta Kolonbia eta Bolivia bezalako jatorriek garrantzia berezia dute (udalerrian erroldatutako atzerriko emakumeen laurden bat bi jatorri

horietako batekoa da). Ekarpem femenino esanguratsua duten beste jatorri latinoamerikar batzuk, besteak beste, Nikaragua (atzerriko emakumeen populazioaren % 9,2), Venezuela (% 6,0) eta Paraguai (% 5,4) dira.

8. TAULA. ATZERRIKO JATORRIKO POPULAZIO FEMENINOA EMATEN DUTEN HERRIALDE NAGUSIAK BILBON, ABSOLUTUAK ETA EHUNEKOAK, 2022

	EMAKUMEAK	% EKARPENA	% METATUA
KOLONBIA	4.267	15,8	15,8
BOLIVIA	2.631	9,8	25,6
NIKARAGUA	2.468	9,2	34,8
VENEZUELA	1.617	6,0	40,8
PARAGUAI	1.452	5,4	46,2
MAROKO	1.395	5,2	51,3
ERRUMANIA	1.246	4,6	56,0
TXINA	1.211	4,5	60,5
EKUADOR	1.018	3,8	64,2
BRASIL	882	3,3	67,5
PERU	697	2,6	70,1
HONDURAS	598	2,2	72,3
ARGENTINA	563	2,1	74,4
FRANTZIA	493	1,8	76,2
KUBA	451	1,7	77,9
GAINERAKOAK	5.953	22,1	100,0
GUZTIRA	26.942	100,0	

ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

3.2 Adina


Adinari dagokionez, atzerriko jatorria duen populazioa nabarmenki gazteagoa da jatorri espainiarra duen populazioa baino. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, atzerriko jatorria duten 10 pertsonatik 8 lan egiteko adin tartetean daude (18 eta 64 urte artean).

Nabarmenezkoa da 20 eta 40 urte arteko adin tartean dagoen atzerriko jatorriko populazioaren ehunekoa espainiar jatorriko biztanleen artean dagoenaren bikoitza baino gehiago dela (% 45,5 eta % 18,9, hurrenez hurren). Deigarria da, bidenabar, atzerriko jatorriko populaziotik % 4,4k baino ez dituela 65 urte eta gehiago; bestalde, Espainiako estatuko jatorriko

populazioaren laurden bat baino gehiago dago adin tarte horretan.

Adin desberdintasun horiek dependentzia tasan islatzen dira, hau da, populazio mendekoaren eta populazio aktiboaren artean dagoen proportzioan, eta dependentzia ekonomikoa duen zatiari eusteko populazioaren zati produktiboak egin behar duen esfortzua agerian geratzen da. Hala, Espainiako jatorri duen populazioaren kasuan, 1,46 pertsonak egin behar diete aurre mendekotasuna duen pertsona baten beharrazinei, baina atzerriko jatorriko pertsonen kasuan esfortzua 5,7 pertsonen artean banatzen da.

16. GRAFIKOA. ESPAINIAKO ETA ATZERRIKO JATORRIKO POPULAZIOAREN ADIN EGITURA, BILBON, EHUNEKOAK, 2022




ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Bilboko Espainiako eta atzerriko jatorriko populazioen adin egituren eta populazioen piramideen grafikoek argi uzten dute aurreko grafikoan deskribatu ditugun desberdintasunak: Espainiako jatorriko populazioa gero eta zaharragoa da, eta

gero eta pertsona aktibo gutxiago ditu mendeko pertsonen eusteko; atzerriko jatorriko populazioa potentzialki aktiboak eta potentzialki ugalkorrek diren adin tartetean biltzen da.

17. GRAFIKOA. ESPAINIAKO ETA ATZERRIKO JATORRIKO POPULAZIOAREN ADIN PIRAMIDEAK, 2022



ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Jatorriko eremu geografikoen arabera adin egiturak argi uzten du immigranteen populazioa batez ere lan egiteko tarteetan biltzen dela, banaketa antzekoekin baina zenbait salbuespenekin, besteak beste, Brexit ondorengo EB24 (41 eta 64 urte artean daude pertsonen % 44,6) eta, neurri txikiagoan,

Brexit ondorengo EB27 (% 40,2). Brexit ondorengo EB24ko populazioak du 64 urtetik gorako pertsonen ehunekorik handiena (% 13,7). Txinatar jatorriko populazioak du populazio gazteenen ehunekorik altuena; populazioaren laurden bat 18 urtetik beherakoa da.

9. TAULA. BILBON ERROLDATUTAKO ATZERRIKO JATORRIKO POPULAZIOAREN ADIN EGITURA JATORRIKO EREMUEN ARABERA, EHUNEKOAK, 2022

	0-17	18-40	41-64	65 ETA +	GUZTIRA	GUZTIRA
LATINOAMERIKA	8,9	49,8	37,2	4,0	100	29.655
MAGREB	11,8	57,7	27,1	3,4	100	5.891
GAINERAKO AFRIKA	14,2	44,4	38,8	2,6	100	4.387
BREXIT ONDORENGO EB24	10,0	31,7	44,6	13,7	100	2.827
BREXIT ONDORENGO EB27 (BULGARIA, ERRUMANIA ETA KROAZIA)	19,5	37,8	40,2	2,6	100	2.375
TXINA	24,7	37,8	34,3	3,2	100	2.370
GAINERAKO ASIA	18,0	53,8	25,2	3,1	100	1.789
GAINERAKOAK	14,6	44,6	33,3	7,6	100	2.170
GUZTIRA	11,5	48,1	36,0	4,4	100	51.464

ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Atzerriko jatorriko populazio gazteari erreparatuz gero (15 eta 29 urte artean), gazte horiek batez ere Kolonbia, Maroko, Nikaragua, Bolivia, Venezuela, Paraguai eta Txina

herrialdeetatik datozela ikus dezakegu. Sei jatorri horiek 15 eta 29 urte arteko atzerriko jatorriko populazioaren erdia baino gehiago hartzen dute.

10. TAULA. ATZERRIKO JATORRIKO POPULAZIO GAZTEAREN (15-29 URTE) JATORRI NAGUSIAK BILBON, ABSOLUTUAK ETA EHUNEKOAK, 2022

	POPULAZIO GAZTEA	% EKARPENA	% METATUA
KOLONBIA	1.821	14,5	14,5
MAROKO	1.672	13,3	27,9
NIKARAGUA	1.086	8,7	36,5
BOLIVIA	1.079	8,6	45,1
VENEZUELA	747	6,0	51,1
PARAGUAI	555	4,4	55,5
TXINA	541	4,3	59,8
EKUADOR	459	3,7	63,5
ERRUMANIA	341	2,7	66,2
HONDURAS	278	2,2	68,4
BRASIL	269	2,1	70,6
PERU	256	2,0	72,6
ARGENTINA	234	1,9	74,5
ALJERIA	208	1,7	76,1
SENEGAL	198	1,6	77,7
DOMINIKAR ERREPUBLIKA	185	1,5	79,2
GAINERAKOAK	2.611	20,8	100,0
GUZTIRA	12.540	100,0	


ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

3.3 Ikasketa maila

Esparru horretan erroldako datuen mugak kontuak hartuz, udalerrian erroldatutako jatorri atzerritar eta espainiarreko populazioaren hezkuntza maila aztertuko dugu jarraian. Bilbon bizi diren jatorri atzerritarreko pertsonen artean % 2,8k ez ditu ikasketak bukatu, % 42,5ek gehienez DBH ikasketak edo baliokideak ditu, laurden batek (% 26,1) Batxilergo ikasketak edo baliokideak izango lituzke, eta % 17,0k goi mailako ikasketak ditu. Emakumeen kasuan ikasketa maila


goreneta ehunekoak pixka bat altuagoak dira (Batxilergoa eta unibertsitate ikasketetan). Espainiako jatorriko populazioarekin erkatuta desberdintasun nagusiak goi mailako ikasketak dituzten multzoarekin ikusi dira, ia 10 puntu handiagoa da jatorri espainiarreko populazioaren kasuan. Bestalde, jatorri atzerritarreko biztanleen artean hezkuntza maila baxuko populazioaren pisua handiagoa da (derrigorrezko bigarren hezkuntza eta derrigorrezkoaren ondorengoa).

18. GRAFIKOA. ATZERRITAR JATORRIKO PERTSONEN BANAKETA IKASKETA MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA, EHUNEKOAK, 2022



ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

19. GRAFIKOA. ESPAINIAKO JATORRIKO PERTSONEN BANAKETA IKASKETA MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA, EHUNEKOAK, 2022




ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

4. Bizitegi kokapena

Atzerriko jatorriko pertsonen barrutien arabera duten banaketari dagokionez, ikus dezakegu Errekalde eta Ibaiondo barrutietan pertsona horien ehunekoa handiagoa dela, barruti bakoitzeko populazio osoarekin erkatuz gero (% 20,1 eta % 19,0, hurrenez hurren). Uribarri (% 16,0) ere zifra Bilboko batez bestekotik (% 14,9) pixka bat gorago

dago. Beste muturrean (hau da, pertsona horien presentzia erlatibo txikiagoarekin) Abando eta Otxarkoaga-Txurdinaga barrutiak daude; barruti horietan populazioaren % 10 inguruk du atzerriko jatorria. Nabarmendu behar da barruti guztietan, Ibaiondon izan ezik, atzerriko jatorriko populazioaren pisua handitu egin dela aurreko urtearekin alderatuta.

20. GRAFIKOA. ATZERRIKO JATORRIKO POPULAZIOAREN EHUNEKOA BILBOKO BARRUTIETAN, 2022




ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

2011. urtetik, atzerriko jatorriko populazioak 4,3 puntutan egin du gora (% 10,6tik % 14,9ra). Barne hazkunderik handiena izan duen barrutia Errekalde izan da, +7,6 punturekin (% 12,5etik % 20,1era); ondoren datoz Uribarri (+6,0), Otxarkoaga-Txurdinaga (+5,8), Begoña (+5,7), eta Basurtu-Zorrotza (+4,2).

Ibaiondo eta Deustu (+3,1) barrutietako hazkundera udalerriko batez bestekoa baino txikiagoa izan da. Abandon ere atzerriko jatorriko populazioaren pisua igoera arina izan du azken urteetan (+0,7).

21. GRAFIKOA. ATZERRIKO JATORRIKO POPULAZIOAREN EHUNEKOA BILBOKO BARRUTIETAN, 2011 ETA 2022




ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Populazio baten eta bestearen kokatze logikan sakonduz, hurrengo grafikoan Espainiako eta atzerriko jatorriko populazioak barrutien arabera duten banaketa ikus dezakegu. Ikus daitekeen moduan, atzerriko jatorria duen populazioa neurri handiagoan Ibaiondo (zifra osoaren % 22,8; Espainiako

jatorriko populazioa, berriz, % 17,1 da) edo Errekalde barrutietan (% 19 eta % 13,2) bizi da. Bestalde, espainiar jatorriko populazioa, neurri handiagoan, Abando (% 15,6) eta Deustu (% 14,5) barrutietan bizi da.

22. GRAFIKOA. ESPAINIAKO ETA ATZERRIKO JATORRIKO POPULAZIOAREN BANAKETA BARRUTIEN ARABERA, EHUNEKOAK, 2022




ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Barrutietatik auzoetara joz gero, ikus daiteke San Frantzisko, Zabala, Arabella, Iralabarri eta Bilbo Zaharra auzoek atzerriko jatorriko populazioaren pisu handiagoko barne banaketa daukatela. Ondoren datoz Altamira, Uretamendi eta Arangoiti.

Bestalde, atzerriko jatorriko pertsonen proportziorik txikiena Indautxu, Loruri, Elorrieta, Txurdinaga eta Miribilla auzoetan dago.

23. GRAFIKOA. ATZERRIKO JATORRIKO POPULAZIOAREN EHUNEKOA BILBOKO AUZOETAN, 2022




ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Atzerriko jatorriko populazioak jatorrizko eremuen arabera barrutietan duen egoitza banaketari erreparatuz gero, ikusiko dugu jatorri latinoamerikarra dutenek presentzia handiagoa dutela barruti guztietan, eta haien presentzia bereziki garrantzitsua da Deustu (% 70,3), Basurtu-Zorrotza (% 64,2) eta Abando (% 60,1) barrutietan.

Begoña barrutian Errumania, Bulgaria edo Kroaziatik (% 10,1) iritsitako pertsonen presentzia nabarmena da. Magrebetik iritsitako populazioaren presentzia erlatiborik handiena Otxarkoaga-Txurdinaga eta Ibaiondo barrutietan dago (% 17,9 eta % 15,6 hurrenez hurren). Bestalde, Txinako jatorriko populazioaren presentziarik handiena Errekalde (% 10,8) eta Abando (% 6,5) barrutietan dago.

24. GRAFIKOA. BILBOKO BARRUTIAK ATZERRIKO JATORRIA DUEN POPULAZIOAREN JAIOTERRIAREN ARABERA, EHUNEKOAK, 2022




ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Barrutietan bizi diren jatorri atzerritarreko emakumeen pisuari erreparatuz gero, Abando (% 58,1) eta Deustu (% 56,8) nabarmendu behar dira feminizatuenak direlako.

Barrutirik maskulinizatuena Ibaiondo izango litzateke, gizonak % 52,5 baitira eta emakumeak % 47,5.

25. GRAFIKOA. ATZERRIKO JATORRIKO POPULAZIOAREN BANAKETA EGOITZA BARRUTIEN ETA SEXUAREN ARABERA, EHUNEKOAK, 2022



ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

5. Egoitza aldaketak eta errolda altei buruzko informazioa

Egoitza aldaketek Espainiako estatuko edo atzerriko beste udalerrri bat helmuga edo jatorri gisa duten pertsonen mugimenduei buruzko informazioa ematen dute. Egoitza aldaketek ez dute informaziorik ematen udalerrian gertatzen diren alta eta baja guztiei buruz, ez baitituzte kontuan hartzen, adibidez, biztanleriaren mugimendu naturalak eragindako aldaketak (jaiotzak eta heriotzak). Bestalde, kontuan hartu behar da estatistika horrek mugimenduei egiten diela erreferentzia, eta ez pertsoneri; izan ere, pertsona bakoitzak urtean behin baino gehiagotan alda dezake bizitokia udalerrri batetik beste batera.

Joan den urtean zehar (2021), Bilbon, guztira, egoitzaz aldatu eta hiribilduan erroldatu ziren pertsonen 14.809 errolda alta izan ziren; horrez gain, baja eman eta beste udalerrri edo herrialde batera bizitzera joan diren pertsonen 11.401 errolda baja izan ziren. Nabarmendu behar da alden bolumena % 16,5 hazi dela, eta bajek, berriz, beherakada arina izan dute.

Aipatzekoa da Bilbotik eta Bilborako egoitza mugimendu gehienak barne izaerakoak direla, hau da, estatuko beste udalerrri batetik edo estatuko beste udalerrri baterantz gertatzen direla. Mugimendu hauen % 24,2 atzeritik gertatzen da, eta irteeren % 4,3k baino ez du atzerriko beste udalerrri bat helburutzat.

11. TAULA. EGOITZA ALDAKETEN BOLUMENAREN BILAKAERA BILBON, 2005-2021

	ALTAK	BAJAK	SALDOA
2005	16.437	15.687	750
2007	17.936	17.694	242
2009	17.117	18.777	-1.660
2011	18.013	18.867	-854
2013	11.948	10.249	1.699
2015	13.585	9.917	3.668
2016	14.076	10.077	3.999
2017	15.033	9.966	5.067
2018	16.076	10.865	5.211
2019	17.880	11.549	6.331
2020	12.707	11.572	1.135
2021	14.809	11.401	3.408

ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Bestalde, 2021ean zehar Bilboko erroldan alden erdia (% 51,2) nazionalitate espainiarra duten pertsonena izan da (Espainian edo atzerrian jaiotakoak). Atzerriko nazionalitateen artean batez ere Latinoamerikakoak nabarmentzen dira (% 24,9); gure inguruko profil nagusian gailentzen dira. Magreb (% 9,0) eta Afrikako gainerako herrialdeetako (% 4,1) zifrak ere aipagarriak dira.

Espainiar nazionalitatearen ondoren, 2021ean alden artean talde nazional garrantzitsuenak Maroko, Kolonbia eta Nikaragua izan ziren. Pisu garrantzitsua daukaten beste herrialde batzuk Venezuela, Paraguai, Txina, Bolivia, Errumania, Pakistan eta Honduras dira. Honduras (% 73,2), Nikaragua (% 73,0) eta Paraguai (62,7%) nazionalitateen altetan emakumeen pisua bereziki nabarmentzen da.

12. TAULA. ERROLDA ALTEN BANAKETA BILBON NAZIONALITATEEN ARABERA, EREMUKA MULTZOKATUTA, 2021


	MAIZTASUNA	EHUNEKOAK	EHUNEKO METATUA
EB15	343	2,3	2,3
BREXIT ONDORENGO EB24	42	0,3	2,6
BREXIT ONDORENGO EB27	214	1,4	4,0
GAINERAKO EUROPA	184	1,2	5,3
MAGREB	1.332	9,0	14,3
GAINERAKO AFRIKA	602	4,1	18,3
IPAR AMERIKA	91	0,6	18,9
LATINOAMERIKA	3.693	24,9	43,9
TXINA	258	1,7	45,6
GAINERAKO ASIA	437	3,0	48,6
OZEANIA	4	0,0	48,6
APATRIDAK	23	0,2	48,8
ESPAINIA	7.586	51,2	100
GUZTIRA	14.809	100	

ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Modu osagarrian, udalerrian alta eman duten jatorri atzerritarreko pertsonen jatorriari buruzko informazioa ere ematen digu erroldak. Hurrengo grafikoan pertsona horien abiapuntua ikus daiteke, 2021ean alden bolumen handienak izan dituzten jatorrien kasuan. Kolonbiar jatorriko pertsonen artean, azken urte honetan izandako alden pisu handiena

atzerritik iritsitako mugimenduei dagokie. Honduras, Paraguai, Bolivia, Maroko eta Errumaniako jatorriko pertsonen alden artean, EAE barruko barne mugimenduek pisu handiagoa daukate. Azkenik, populazio txinatarraren kasua aipatu behar da, beste eskualde batzuetatik iritsitako altak baitira nagusi.


26. GRAFIKOA. ALTEN ABIAPUNTUA, JATORRI ATZERRITARRA DUEN POPULAZIOAREN JAOTERRIAREN ARABERA, EHUNEKOAK, 2021



ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Atzerritik iritsitako jatorri atzerritarreko pertsonen altei erreparatuz gero, ikusi da finkatzeko barruti nagusiak Ibaiondo (% 24,0) eta Errekalde (% 19,3) direla.

27. GRAFIKOA. ATZERRITIK IRITSITAKO JATORRI ATZERRITARREKO POPULAZIOAREN ERROLDA ALTEN ERROLDATZE BARRUTIA, EHUNEKOAK, 2021




ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Orain Espainiako estatuko beste udalerrri batetik iritsitako atzerriko jatorriko populazioaren errolda altei begiratu diegu; bada, azpimarratu behar da pertsona horien erdia baino

gehiago (% 60,9) Bizkaiko beste udalerrri batetik etorri dela. Pertsona horien abiapuntuko udalerrri nagusiak Barakaldo, Getxo, Basauri, Sestao, Erandio eta Santurtzi dira.

28. GRAFIKOA. ESPAINIAKO ESTATUKO BESTE UDALERRI BATETIK IRITSITAKO JATORRI ATZERRITARREKO POPULAZIOAREN ERROLDA ALTEN JATORRIZKO PROBINTZIA, EHUNEKOAK, 2021



ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

Bestalde, bereziki interesgarria da hurrengo datuak aztertzea; atzerriko nazionalitatea duten pertsonen egindako mugimenduei edo egoitza aldaketei buruzkoak dira, baina Bilbo udalerrri barruan. Nabarmendu behar da mugimendu horietatik % 65,2 barruti desberdinetako auzoen artean izan

dira. 12. taulan mugimendu horiek aztertuko dira, jatorriko eta helburuko barrutia aintzat hartuz; ikus daitekeen moduan, kasu guztietan zifra handiena barruti berari dagokio. Deustuko barrutietan modu nabarmenagoan gertatzen da (% 55,0).

13. TAULA. NAZIONALITATE ATZERRITARREKO POPULAZIOAREN EGOITZA ALDAKETAK JATORRIZKO ETA HELBURUKO BARRUTIEN ARABERA, EHUNEKOAK, 2021

		BARRUTI XEDEA								GUZTIRA
		DEUSTU	URIBARRI	OTXARKOAGA -TXURDINAGA	BEGOÑA	IBAIONDO	ABANDO	ERREKALDE	BASURTU -ZORROTZA	
JATORRIZKO BARRUTI	DEUSTU	55,0	6,0	1,5	4,8	11,7	5,1	11,4	4,5	100,0
	URIBARRI	6,9	34,4	8,6	11,2	16,7	5,9	9,9	6,5	100,0
	OTXARKOAGA -TXURDINAGA	5,4	11,1	31,4	12,1	18,7	4,1	11,4	5,7	100,0
	BEGOÑA	5,9	10,5	9,0	37,3	18,2	5,4	11,3	2,4	100,0
	IBAIONDO	6,8	9,5	4,9	10,5	39,5	6,5	17,3	4,9	100,0
	ABANDO	8,6	5,5	4,8	7,0	15,8	22,8	26,5	9,1	100,0
	ERREKALDE	5,8	7,3	3,9	4,5	20,9	9,0	40,4	8,3	100,0
	BASURTU -ZORROTZA	8,5	7,0	2,8	6,3	14,9	9,5	21,1	30,0	100,0
	BILBAO	12,5	10,9	6,1	10,9	22,6	8,2	20,9	8,0	100,0

ITURRIA: BILBOKO UDALAREN BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN MIKRODATUAK

6. Ondorioak

2022ko urtarrilaren 1ean jatorri atzerritarreko 51.464 pertsona daude erroldatuta Bilbon; horrek populazio osoaren %14,9 esan nahi du, eta zifra hori aurreko urtekoaren oso antzekoa da (% 14,6). Alarma egoera ezarri eta bi urte baino gehiago joan direnean, datuek erakusten dute udalerrirantz jotzeko migrazio fluxuek oraindik COVID-19aren eraginpean daudela. 2022an jatorri atzerritarreko pertsona erroldatuen kopurua igo egin da 673 pertsonatan; zifra hori pandemia aurrekoa baino nabarmen baxuagoa da, 2019an baino % 86,8 gutxiago, eta joan den urteko datua baino % 29,2 gutxiago.

Udalerrian jatorrizko eremu nagusia Latinoamerika da sistematikoki; gainerako jatorrietatik distantzia hartzen du gainera. Beste analisi batzuek ere gauza bera adierazi dute, esaterako Etorrin Atzerritarrei buruzko Inkesta (EABI)⁴, EAEko ekonomiari eta populazio migratzaileak bertan txertatzeko aurkitzen dituen aukerei dagokionez, bereziki pertsonak zaindu, etxeko lanak egin eta ostalaritzari lotutako sektoreetan. Kolonia eta Bolivia jatorriak nabarmendu behar dira; udalerrian jatorri atzerritarreko populazioaren ia laurdena hartzen dute (% 23). Horrez gain, Marokoko jatorria duen populazioaren igoera nabarmendu behar da aurreko urtearekin alderatuta; jatorrizko bigarren komunitatea da orain.

Jatorri atzerritarreko populazioaren (nabarmen gazteagoa) adin egitura dependentzia tasa txikiagoan islatzen da, eta Espainiako jatorriko populazioaren zahartze arazo larriaren ondorioak partzialki konpontzen ditu.

Jatorri atzerritarreko pertsonak Bilboko barrutietan duten espazio banaketari dagokionez, ez dugu aldaketa nabarmenik ikusi. Gaur egun ezin da esan ghettoak edo egoitza segregazioa dagoenik atzerritar guztientzat. Finkatu ondoren, jatorri atzerritarreko populazioa hiriko auzo eta barrutietan sakabanatzen da. Hala, adibidez aurten, Bilbo barruan jatorri atzerritarreko populazioaren finkatzeen erdia baino gehiago (% 65,2) jatorrizko auzoko barruti desberdinetako auzoetan izan dira. Hala ere, erregela hori ez da beti betetzen Afrikako populazioarekin eta bereziki Saharaz azpiko populazioarekin, mugikortasun aukera eta eredu askoz mugatuagoak baitituzte.



⁴ Etorrin Atzerritarrei buruzko Inkesta (EABI) Eusko Jaurlaritzak egindako estatistika eragiketa ofiziala da; EAEn jatorri atzerritarreko populazioaren bizi baldintzak ezagutu, aztertu eta ebaluatzea du xede, eta informazio zabala eskaintzen du ezaugarri demografiko, sozial eta ekonomiko nagusien inguruan, migratzeko arrazoien eta migrazio proiektuari dagokionez.